

ETXEBARRIA BILBAO, I. (2020)

*Las emociones y el mundo moral. Más allá de la empatía.* Madril: Síntesis.

### **Emozioak eta mundu morala**

Itziar Etxebarriaren *Las emociones y el mundo moral. Más allá de la empatía* liburua emozio moralen garrantziari buruzko liburua da, oinarri eta arrazoiketa sendoz ondutakoa eta emozio moralen hezkuntza funtsezkoa dela ikusarazten duena. Hiru atal nagusi ditu: lehenbizikoan, emozioek moralaren ikerketan duten tarteari begiratzen zaio; bigarrenean, emozio moralez jarduten du egileak; eta, hirugarrenean, emozio moralen hezkuntza da ardatza.

Lehenbiziko atalean moralaren ikerketan bizi izandako iraultza emozionala da hizpide nagusia. Horri dagokionez, azpimarratzekoa iruditzen zait gogoraraztea laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik iraultza emozionala deritzon fenomeno gertatu zela ikerketan, besteak beste honako ekarpenen hauen bidez agertu zena: adimen anizkoitzen teoria, adimen intrapertsonala barne hartuz, adimen emozionala, garun emozionala aztertzen duen neurozientzia, psikologia positiboa eta emozio positiboak, hezkuntza emozionala eta abar. Marko horretan emozioak nabarmentzen dira moralaren funtsezko elementu gisa.

xx. mendean, Jean Piaget (1932/1987) eta Kohlberg (1975) izan ziren erreferente nagusiak moralaren azterketa zientifikoan: arrazoibide moralaz, judizio moralaz eta garapen moralaz arduratu ziren, eta batez ere arrazoibidearen eta kognizioaren ikuspegia baliatu zuten. Ez zuten, ordea, dimentsio

emozionala aintzat hartu. XXI. mendera bitartean ez ziren agertu emozioek moraltasunean duten papera azpimarratu zuten sona handiko beste autore batzuk, esaterako, Joshua Greene, Jonathan Haidt eta Jesse Prinz.

Emotibistek egindako ekarpenak, oro har, ez daude Piageten eta Kohlbergen oinarriekin kontraesanean: emozioen dimentsioa gehituta, zabaldu eta aberastu egiten dute erreferentziazko esparrua. Nolanahi ere den, kontuan izan behar da judizio moralaren kontzeptualizazioan guztiz kontrako ikuspegia dagoela. Kohlbergen ustez, judizio moralaren oinarria arrazoia da; ostera, Haidt eta Prinz emotibisten arabera, judizio moralaren sustraiak emozionalak dira. Greene bi posizio horien erdibidean kokatzen da.

Liburuaren bigarren atala emozio moralen ikerketari eskaintzen zaio. Emozio moralen artean kokatzen da, adibidez, enpatia, edota enpatiaren emozio deribatuak, barkamena, esaterako. Halaber, badaude emozio autokontzientek: lotsa, erru sentimendua eta harrotasuna, edota emozio kondenatzaileak: amorrua, mespretxua eta nazka. Emozio laudatzaileak ere badira: esker ona eta elebazio morala (*elevation*). Bada, oso interesgarria da funtzionamendu moralaren hainbat alderditan emozio horiek duten eraginari buruz Itziar Etxebarriak egiten duen analisia, gogoeta pertsonalak eta elementu kritikoak txertatuta egindakoa.

Ikuspegi objektibo baten arabera aurkezten da emozio moralen analisia, bakoitzaren aldeko eta kontrako alderdiak aztertuta. Enpatia aztertzean, esaterako, Prinz eta Bloomen planteamendu kritikoak aurkezten dira, eta honelako galderak egitera iristen da egilea: «hain txarra ote da enpatia?». Galdera hori harrigarria da oso, zehazki, urteak daramatzagulako enpatiaren eta enpatiaren hezkuntzaren garrantzia azpimarratzen, egokia delakoan norbanakoaren garapenerako eta biolentzia prebenitzeko, besteak beste. Bada, galdera erabat probokatzailerak da kontuan hartuta hainbat ikerketek erakusten dutela eskola-jazarpenean parte hartu duten gazteek ez dutela enpatia garatu, eta enpatia lantzea prebentziorako faktore izan daitekeela. Seguruenik, auzi guzti honen oinarrian enpatiaren bestelako kontzeptualizazio bat dago, zeinaren definizioa ez dagoen orokorrean onartuta. Liburuaren egileak adierazten duenez, enpatia beste emozio moral batzuen iturri da, adibidez, errukiaren, erru sentimenduen eta sumindura moralaren iturri, bai eta akzio positiboetarako motibazioen iturri ere, adibidez, laguntzarako, kontsolamendurako, prosozialiterako, altruismorako... iturri. Gauzak horrela, Etxebarriak planteamendu hau egiten du: «auzia zera da: onurek gainditi egiten ote dituzten arriskuak». Auzi hori, atala irekitzen duen galderarekin batera, oso harrigarri egiten zaie hezkuntzan ari diren eta enpatia sustatzea xede duten pertsonoi. Egiazki, zur eta lur utz gaitzake auziak, hortik aurrerako arrazoiak nola egiten diren. Ez dakit *spoilerik* egingo ote dudan aurreratzen baldin badut jarraian hauxe dioela: «gure ustez, bai, bete-betean egin beharrekoa zera da: hezteak». Aitortu behar dut arindu egi-

ten duela horrek hezkuntzako profesional oro. Hau adibide bat besterik ez da, baina oro har horrela egiten ditu emozio moral bakoitzaren aldeko eta kontrako alderdien inguruko gogoetak liburu honen egileak.

Erru sentimenduak dira, seguruenik, emozio eztabaidagarrienetako bat. Gutxienez hirurogeita hamarreko hamarkadara arte iraun zuen erruduntasunaren kultura nagusitik, penduluaren legea bitarteko dela, pertsonak errugabetzera igaro ginen, hainbestearino non «erru' hitza ere desagerrarazi egin den inoiz ohiko kulturatik eta hezkuntza praktikatik. Horrek arriskuak izan ditzake; izan ere, pertsona batek basakeriak egin ditzake inongo errurik sentitu gabe. Besteengan eragindako ondorioen ardurarik ez duten pertsonen osatutako gizarte batek ondorio latzak izan ditzake. Horri dagokionez, Etxebarriak erru sentimenduak berreskuratzen ditu, eta zehazten du «pertsonek arteko mina ekiditeko balio» dutela, eta komeni dela erru enpatikoaren eta antsietate handikoa eta agresiboa den erruaren artean bereiztea; zehazki, azken hori kaltegarria izan daiteke pertsonen osasun psikikorako. Erru enpatikoa, ordea, beharrezkoa da gizarte-funtzionamendu egokirako. Azkenik, egileak esaten du ez ditugula erru sentimenduen askotariko alderdiak, positiboak zein negatiboak, ahaztu behar.

Emozio moralen alderdi positiboen eta negatiboen analisia ageri dira egileak egiten duen azterketan, eta, hala, psikologia positiboak hainbeste sustatu duen esker onari buruz ari denean, norbanakoaren autonomia gutxitzeko eta egoera bidegabeak betikotzeko arriskuaz ohartarazten gaitu. Hala ere, ohar kritiko horiek ez dute ahaztarazi behar esker ona bezalako emozioek sustatu beharreko eragin positiboak dituztela. Emozio moralen konplexutasunak dakar —eta justifikatzen du— pertsonak hezi behar izatea zentzu ona baliatu dezaten eta ez daitezen arriskueta erori.

Bada, emozio moralen analisi zientifikoak oinarri sendoak ezartzen ditu moralaren XXI. mendeko hezkuntzarako, eta liburuaren hirugarren atalean, Itziar Etxebarriak arriskua hartzen du: atea irekitzen dio hezkuntza moralari, hots, emozio moralen lanketa egiten den hezkuntzari, non emozio moralen alderdi positiboak garatuko diren eta balizko ondorio negatiboak ahulduko diren. Gainera, pauso bat aurrera eginez, praktikarako proposamenak egiten ditu saiakera gisa. Hala, etorkizuneko ikerketetarako langai izan beharko dute proposamen horiek, hots, funtsezko abiapuntu dira ildo beretik aurrera egiteko.

Lan honetan dokumentazio-lan handia dago, erreferentzia garaikideak eta klasikoak aurki daitezke, eta nola lanaren egiturak eta argumentuen sendotasunak, hala analisi kritikoak, gaian aditua den pertsona batek egindako lana dela erakusten dute. Itziar Etxebarria katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Psikologia Fakultatean, eta lan-ildoan artean ditu portaera prosoziala, izaera emozionaleko portaera zibikoa eta morala (enpatia,

atxikimendua), emozio autokontzienteak (erru sentimenduak, lotsa, harrotasun morala), generoaren araberako ezberdintasunak emozioetan eta emozioak esparru sozialean eta klinikotan. Gai horiei buruzko argitalpen andana du aldizkari zientifikoetan. Psikologia orokorreko irakasle aritu izan da eta, horrez gainera, askotariko prestakuntza eskaini izan du moraltasunaren psikologiari buruz, gaitasun sozioemozionalen inguruan, eskola-ingurunean garapen morala laguntzeko programei buruz, edota emozioa eta portaera eremu moralean, prosozialaren garapena, emozio moralak, emozio autokontzienteak... gai hartuta. Irakasle eta ikertzaile gisa egindako bide luzeak nazioartean emozioez eta moralaz jakintza gehien metatu duten adituen artean kokatu du. Hain zuzen ere, horrek egiten du egilea pertsona egoki hizpide dugun liburua egiteko.

Eskertu egin behar diot Itziar Etxebarriari moralaren inguruko ikerketan eduki berritzaileak eskaintzeko egindako ahalegina. Uste dut hortik etorriko direla hezkuntza moralerako, etikarako eta hezkuntza emozionalerako aldaketa berritzaileak. Izan ere, liburu honek laguntzen du oinarria jartzen hezkuntza emozionalari, zeina beti jo izan den balioen hezkuntzaren eta hezkuntza moralaren alor paralelotzat. Liburu honen bidez, argi egiten zaio bi ikuspegiren (moralala eta emozionala) gurutzatzeari, eta horrek batasuna dakar hezkuntza-praktikan aritzeko.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, liburuari oso gomendagarri deritzot emozioen eta moralaren gaiari buruzko interesa duten psikologiaren alorreko profesionalentzat, hezkuntzaren esparruko profesionalentzat, batez ere hezkuntza moralaren eta hezkuntza emozionalaren inguruko interesa dutenentzat, eta dimentsio emozionala eta moralala bezalako funtsezko gaiak jorratzeko joera berrietan egunean egon nahi duen ororentzat.

*Bisquerra, Rafael*

*(Red Internacional de Educación Emocional y Bienestar,  
RIEEBeko lehendakaria, www.rieeb.com)*

SANCHO, J. M.; HERNÁNDEZ, F.; MONTERO, L.; DE PABLOS, J.; RIVAS, J. I. eta OCAÑA, A. (koord.) (2020)

*Caminos y derivas para otra investigación educativa y social.* Barzelona: Octaedro

Liburu hau punta-puntako 54 akademikoren lankidetzari esker gauzatu da. Gehienak REUNI+D (*Red Universitaria de Investigación e Innovación Educativa*) bikaintasun-sareko kideak dira, eta 2004. urteaz geroztik elkarrekin ari dira, espainiar ikerketa-eremuan konsolidaturiko 11 ikerketa-taldetan, 150 ikertzaileekin batera. Ohiko sare horretako kideei beste bost ikertzaile aditu batu zaizkie lan honetan, horietako 2 nazioartekoak.